

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea tasa jakin batzuk (zerbitzu publikoak ematearen tasak, administrazio, kirol, gizarte, komunitatearen ongizate eta pertsona eta ondasunen babesaren arloko administrazio jarduerak gauzatzearen tasak eta kirol instalazioak erabiltzearen tasak) arautzen dituen ordenantzaren II. eranskina aldatzeari

Udalbatzak, 2018ko azaroaren 29ko ohiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion tasa jakin batzuk arautzen dituen ordenantzaren II. eranskina aldatzeari, zeinak arautzen baititu jarduera hauetarako tasak: zerbitzu publikoak; administrazio jarduerak; kirol, gizarte, komunitatearen ongizate eta pertsona eta ondasunen babesaren arloko administrazio jarduerak; eta kirol instalazioak erabiltzea."

Espediente hori jendaurrean jarri zen hogeita hamar egunez, iragarki taulan eta ALHAOn (148. zk.) 2018ko abenduaren 26an argitaratutako iragarki bidez. Epe horretan ez zen haren aurka inongo alegazio idazkirik aurkeztu.

Ondorioz, behin betiko onesten da erabaki hura, eta bat etorritoki ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan xedatutakoa, oso-osorik argitaratzen da ordenantza hori. Hona hemen:

Zerbitzu publikoen, administrazio, kultura, kirol eta gizarte jardueren, gizarte-ongizatearen, pertsona eta ondasun-zaintza zerbitzuen eta kirol instalazioen erabileraren tasen arau ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauak xedatzen duenarekin bat etorritik, udal honek zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasa ezarri eta eskatzen du, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baita jarduera horiek jasotzen dituen eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga gaia

3. artikulua

Zerga gaia da Aiarako Udalak benetan zerbitzua eskaintzea edo jarduera egitea, bai eskatu zaiolako, bai gizabanakoek egindako ekintzek eta egin gabe utzitakoek zeharka eragin dutelako, eta Aiarako Udalarenak diren kirol instalazioak erabiltzea.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoko zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta zerbitzuak, jarduerak edo kirol instalazioak erabiltzea eskatzen badute, edo zerbitzu edo jarduera horien onuraz edo eraginaz gozatzen badute.

2. Zergadunaren ordezekoak izango dira:

“a) Zerbitzu edo jardueren tasetan, onura edo eragina jasotzen duten erabiltzaileen etxebizitza edo lokalen jabeak; haiek, hala badagokio, onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete.”

“b) Arriskua aseguratzen duten erakundeak edo elkarteak, zerbitzu hauen tasetan: suteen prebentzioa eta itzaltzea; aurri, eraikuntza eta eraisketen prebentzioa, salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta zerbitzua mantentzea.”

c) Hirigintza baimenen tasetan, hau da, lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutakoetan, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

5. artikulua

Hauek ordaindu beharko dituzte tasak:

a) Egindako zerbitzuak, jarduerak edo kirol instalazioak erabiltzea gizabanakoek eskatzen badute, eskatu dutenek.

b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek ez badituzte eskatu baina hauek egindako edo ez egindako zerbaitengatik gauzatu behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa lepora dakiekeenek.

6. artikulua

Ordenantza honetatik ateratzen diren zerga zorrak, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ordainduko dituzte.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

7. artikulua

Salbuespenak, murrizketak, hobariak edo beste zerga onura batzuk emateko, udal ogasunei aplikatzekoak diren xedapen orokorretan edo ordenantza honen eranskinetako epigrafeetan ezartzen dena beteko da.

V. Zerga oinarria

8. artikulua

Zerbitzua egiten duen unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinean ezarritakoari jarraituz.

VI. Kuota

9. artikulua

1. Zerga kuota izango da, eranskinean ezartzen denaren arabera, zerga oinarriari tarifa bat aplikatuz ateratzen dena, ezarritako kopuru finko bat, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

VII. Sortzapena eta zergaldia

10. artikulua

“1. Tasa sortzen da zerbitzua ematean, jarduera egitean edo instalazioa erabiltzean; hala ere, eska daiteke zenbateko osoa edo zati bat aurrez ordaintzea.”

Tasaren izaerak eskatzen badu aldizkako sortzapena, eta hala ezarrita badago ordenantza honen eranskinetako dagokin epigrafean, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da, eta zergaldia urte naturala izango da, kasu honetan izan ezik: urtean zehar zerbitzua edo jarduera hasten edo amaitzen bada, zergaldia horren arabera izango da, eta kuota modu proportzionalan hainbanatuko da, dagokion epigrafean ezarritako moduan.

VIII. Likidazioa eta ordainketa

11. artikulua

Udalak kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa dirutan ordainduko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskinetako tarifetan dauden arauen arabera.

Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzea ere eska daiteke.

Zerbitzu publikoaren subjektu pasiboari egotzi ezin dakizkiokeen arrazoiak direla medio zerbitzu publikoa edo jarduera ez bada eman edo egin, edo instalazioa ez bada erabili, itzuli egingo da dagokion zenbatekoa.

12. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioari eta dagozkien zehapenak zehaztearen gaineko guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

X. Azken xedapena

Zerga ordenantza honi eta bere eranskinari, idazkera honetan, 2015eko martxoaren 26an eman zitzaion behin-behineko onespena, eta urte bereko apirilaren 20an, behin betikoa. ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du aldatzea edo indargabetzea onartzen den arte.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Arespalditza, 2019ko otsailaren 8a

Alkate lehendakaria

GENTZA ALAMILLO UDAETA

I. Eranskina

Kirol instalazioak erabiltzea: udal igerilekuak.

Erabiltzaileen abonamendu kuoten eta egun baterako sarrereren taula.

Tarifa:

Uda aldiko abonamendua (bazkideak):

1. Udalerrian erroldatutakoak:

Familia abonamendua (seme-alabak 14 urte beteta), familia ugaria izan ezik: 30 euro.

b) Banako abonamendua, 5-17 urte (17 urte beteta): 10,00 euro.

c) Banako abonamendua, 18 urtetik gora (18 urte beteta): 20,00 euro.

d) 65 urtetik gora (65 urte beteta): 5,00 euro.

e) 5 urtetik beherakoak: doan.

2. Udalerrian erroldatu gabeak:

a) Familia abonamendua (seme-alabak 14 urte beteta): 60,00 euro.

b) Banako abonamendua, 5-17 urte (17 urte beteta): 20,00 euro.

c) Banako abonamendua, 18 urtetik gora (18 urte beteta) 35,00 euro.

d) 65 urtetik gora (65 urte beteta): 11,00 euro.

e) 5 urtetik beherakoak: doan.

Egun baterako sarrerak:

3. Lanegunetako tarifak:

a) Sarrerak 5-17 urte (17 urte beteta): 1,80 euro.

b) Sarrerak 18 urtetik gora (18 urte beteta): 3,00 euro.

c) 65 urtetik gora (65 urte beteta): 1,30 euro.

e) 5 urtetik behera: doan.

4. Jaiegunetako tarifak:

a) Sarrerak 5-17 urte (17 urte beteta): 2,70 euro.

b) Sarrerak 18 urtetik gora (18 urte beteta): 4,00 euro.

c) 65 urtetik gora (65 urte beteta): 1,50 euro.

e) 5 urtetik beherakoak: doan.

Oharrak:

– Ulertzen da urteak ekitaldiaren barruan betetzen direla (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra).

– Adingabeak, 5 urte beteta izan arte, doan sartuko dira udako igerilekura.

– Hauek hartzen dira familiatzat:

– Bikote ezkonduak edo izatezko bikoteak.

– Aurrekoak, 14 urtetik beherako edo 14 urte betetako seme-alabak badituzte.

– Guraso bakarreko familiak, 14 urtetik beherako edo 14 urte betetako seme-alabak badituzte.

– Egiatzapenak:

– Adina nortasun agiri nazionalaren bidez egiaztatuko da, eta 14 urtetik beherakoek familia liburuaren fotokopia bidez egiaztatuko dute, nortasun agiri nazionala izan ezean.

– Familiakoa dela egiaztatuko da familia liburua edo familiaren errolda ziurtagiria aurkeztuta.

Aplikazio arauak:

– Instalazioetara sartzea, betiere, baimendutako gehieneko edukieraren mende egongo da.

– Igerilekuetako lehenengo abonatuaren txartela doan da. Berritu beharra badago galdu edo hondatu delako edo beste zerbaitegatik, 1,00 euroko tasa ordaindu beharko da.

Hobariak eta/edo salbuespenak:

– Instalazio hauen erabiltzaileen egoera sozio-ekonomikoa aintza hartuta, tarifa honetan ezartzen diren tasei hobari eta salbuespen hauek egingo zaizkie:

Salbuespenak:

1. Elkartruke programetan, irabazteko xederik gabeko erakundeek hezkuntza arloan sustaturikoetan, edo aldi baterako harrera programetan, gobernuz kanpoko erakundeek sustaturikoetan, sartuta dauden pertsonak.

Baimen bereziaren bidez doan sartzea.

Egiatzapena: Pertsona/entitate eskatzaileak idatziz egin behar ditu eskaerak, baimenaren aldia hasi baino gutxienez 15 egun lehenago, azaldutako eskakizunak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak erantsita.

2. Ezintasun fisiko, psikiko edo sentzorialak dituztenak kuotak ordaintzetik salbuetsita egon daitezke, baldin eta beren diru sarrerek ez badute gainditzen lanbide arteko gutxieneko soldata eta Aiarako Udalean erroldatuta gutxienez sei hilabete badaramate.

3. Kuotak edo sarrerak ordaintzetik salbuetsita egongo dira igerilekuetara udalak antolatutako jarduerak gauzatzera sartzen diren pertsonak.

Hobariak:

1. Aiarako udalean erroldatuta dauden erabiltzaileak, bazkide txartela edukiz gero, eta familia ugaria izanik eta hori tituluaren bidez egiaztaturik, ehuneko 50eko hobaria izango dute abonatuaren kuotan.

Egiaztapena: Familia ugariaren titulua, familia unitatea osatzen duten kideen berri ematen duena, eta urtero-urtero aurkeztu beharrekoa.

2. Eskola taldeek, kirol taldeek edo elkarte bateko taldeak, 20 kide baino gehiagokoak badira, ehuneko 25eko hobaria izango dute ordaindu beharreko tarifan.

Zerga ordenantza honi eta bere eranskinari, idazkera honetan, 2017ko ekainaren 22an eman zitzaion behin-behineko onarpena, eta urte bereko abuztuaren 15ean behin betikoa. ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du aldatzea edo indargabetzea onartzen den arte.

II. Eranskina

Kultura eta kirol arloak antolatutako ikastaro eta lantegiak emateko zerbitzuaren tasa.

Tarifa:

1. Tasaren zenbatekoa honako era honetan kalkulatu da:

- Ikastaroak ematearren (musikakoak izan ezik): 1,5 euro orduko.

- Aiarako trikitixa eskola:

a) Matrikula:

- Trikitixa: 100 euro / ikastaroa.

- Pandero: 50 euro / ikastaroa.

b) Trikitixa bi ikasle eskolako: 35 euro hileko.

c) Pandero eskolak. 4 eta 6 ikasle bitarteko taldeak, adin eta mailaren arabera bilduta: 20 euro hileko.

2. Tasak sortuko da, osorik, udalak ematea erabaki duen ikastaro bakoitza hasi baino lehen, baldin eta gutxienez parte hartuko dutenen artean 8 udalerrian erroldatuak badira.

Musika ikasgaiak direla eta, hil amaieran ordainduko da, bankuan helbideratuta.

3. Tasaren ondoriozko zenbatekoa ordainduko da erabiltzaileek (edo haren gurasoek edo adingabeen legezko zaintza duenak) eskabidean adierazitako kontu zenbakian helbideraturik ordainketa.

Ordainketa bakarra egingo da, eta ez da itzuliko dirurik behin ikastaroa hasi ondoren.

4. Plaza hutsak geratuz gero, beste ikasle batzuk sartu ahal izango dira dagoeneko hasitako edozein lantegitan. Horrelakoetan, matrikularen zenbateko osoa ordainduko da, edo bestela, zenbatekoaren erdia, ikasleak ikasturteko bigarren lauhilekoan hasten badira lantegi horretan.

Hobariak:

1. Hobari bat emango zaie, aurreko ataleko lehenbiziko puntuan aipatzen diren tasetan, langabezian dauden pertsoneri edo ikasle txartela daukateneri.

Langabezia txartela edo ikasle txartela aurkeztu beharko da matrikula egiteko unean.

Hona hemen zer tasa hobaridun ordaindu beharko dituzten:

- Ikastaroak ematearren: 1,2 euro orduko.

Ez ordaintzea:

Tasa horien zorrak premiamendu bidez eskatuko dira.

Azken xedapena

II. eranskin hau, zeinak Kultur eta kirol arloak antolatutako ikastaro eta lantegiak emateko zerbitzuaren tasa arautzen baititu, argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean iraungo du harik eta hura aldatu edo indargabetzea onartzen den arte.

Eginbidea.

Eranskin hau gehiturik zenbait tasa arautzen dituen ordenantza honi (zerbitzu publikoak ematearen tasak, administrazio, kultur, kirol, gizarte, komunitatearen ongizate eta pertsona eta ondasunak babesteko jarduerak gauzatzearen tasak eta kirol instalazioak erabiltzearen tasak) Udaltzak 2017ko ekainaren 22an egindako ohiko bilkuran eman zitzaion hasierako onarpenera, eta 2017ko uztailaren 10ean ezarri zen iragarki oholean, eta 2017ko uztailaren 10ean argitaratu ALHAOn, hartara jendaurrean jarrita egonik 30 eguneko epean. Behin betiko onetsita geratuko da 2017ko abuztuaren 15ean. Indarrean sartuko da ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean jarraituko du aldatzen edo indargabetzen ez den artean.

Udalak, 2017ko urriaren 19ko ohiko osoko bilkuran, hasierako onespenera eman zion eranskin honen lehen aldaketari, eta iragarki taulan eta ALHAOn (128. zk.a, 2017ko azaroaren 8a) argitaratu zen, 30 egunez. Behin betiko onetsi zen 2017ko abenduaren 22an. Indarrean sartuko da ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean jarraituko du aldatzen edo indargabetzen ez den artean.

Udalak, 2018ko azaroaren 29ko ohiko osoko bilkuran, hasierako onespenera eman zion eranskin honen bigarren aldaketari, eta iragarki taulan eta ALHAOn (148. zk.a, 2018ko abenduaren 26a) argitaratu zen, 30 egunez. Behin betiko onetsi zen 2019ko otsailaren 07an. Indarrean sartuko da ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean jarraituko du aldatzen edo indargabetzen ez den artean.

III. Eranskina

Kultura arloak urtean zehar antolatzen dituen jolas txokoetan eta haur eta gazteentzako gai jakinetarako lantegietan parte hartzearen tasa.

Tarifa:

1. Jolas txokoetan parte hartzea.

Tasaren zenbatekoa honako era honetan kalkulatu da:

- 1,2 euro ordu eta umeko.

Tasa kalkulatzeko kontuan hartuko da urteko edozein sasoiatan udalak antolatutako jarduerak iraungo dituen egunetan sartutako ordu kopurua, "Jolas txokoak" programak dirauen bitartean umeak egun guztietan parte hartu duen ala ez gorabehera.

2. Haur eta gazteentzako lantegi tematikoetan parte hartzea.

1. Tasaren zenbatekoa honako era honetan kalkulatu da:

- 1,6 euro ordu eta umeko.

Tasa kalkulatzeko kontuan hartuko da urteko edozein sasoiaren udalak antolatutako jarduerak iraungo dituen egunetan sartutako ordu kopurua, dagokion lantegiaren programak dirauen bitartean umeak edo gazteak egun guztietan parte hartu duen ala ez gorabehera.

2. Tasak sortuko da, osorik, udalak ematea erabaki duen ikastaro bakoitza hasi baino lehen, baldin eta gutxienez parte hartuko dutenen artean 8 udalerrian erroldatuak badira.

3. Tasaren ondoriozko zenbatekoa ordainduko da erabiltzaileek (edo haren gurasoek edo adingabeen legezko zaintza duenak) eskabidean adierazitako kontu zenbakian helbideraturik ordainketa.

Ordainketa bakarra egingo da, eta ez da itzuliko dirurik behin programa hasi ondoren.

Hobariak:

1. Aurreko paragrafoaren lehen puntuan bildutako tasetan hobaria izango dute hauek: udalak antolatutako programetan adingabe bat baino gehiagoren izena ematen duten gurasoek edo legezko zaintza dutenek (programa berean eman behar da izena, hau da, "jolas txokoak" izenekoan edo lantegi tematikoetan) eta familia ugariaren titularrek.

Izena ematean, familia ugariaren txartela erakutsi beharko da.

Hona hemen zer tasa hobaridun ordaindu beharko dituzten:

- "Jolas txokoak" izenekoan bi neba-arreba adingabek izena emateagatik: 1,1 euro ordu eta adingabeko.

- "Jolas txokoak" izenekoan hiru neba-arreba adingabek izena emateagatik edo familia ugariaren titularra izateagatik (berdin dio zenbat adingabek eman duten izena): euro bat ordu eta adingabeko.

- Lantegi tematikoetan bi neba-arreba adingabek izena emateagatik: 1,5 euro ordu eta adingabeko.

- Lantegi tematikoetan hiru neba-arreba adingabek izena emateagatik edo familia ugariaren titularra izateagatik (berdin dio zenbat adingabek eman duten izena): 1,4 euro ordu eta adingabeko.

Ez ordaintzea:

Tasa horien zorrak premiamendu bidez eskatuko dira.

Azken xedapena

"III. eranskin hau, zeinak Kultur Arloak antolatutako "Jolas txokoak" programetan edo haur eta gazteentzako lantegi tematikoetan parte hartze zerbitzuaren tasa arautzen baitu, argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta indarrean iraungo du harik eta hura aldatu edo indargabetzea onartzen den arte."

Eginbidea.

Eranskin hau gehiturik zenbait tasa arautzen dituen ordenantza honi (zerbitzu publikoak ematearen tasak, administrazio, kultur, kirol, gizarte, komunitatearen ongizate eta pertsona eta ondasunak babesteko jarduerak gauzatzearen tasak eta kirol instalazioak erabiltzearen tasak), udalbatzak 2017ko urriaren 19an egindako ohiko bilkuran hasierako onarpena eman zion, bai eta iragarki oholean eta 2017ko azaroaren 8an ALHAOn (128. zk.a) argitaratu ere, 30 egun egunez. Behin betiko onetsi zen 2017ko abenduaren 22an. Indarrean sartuko da ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean jarraituko du aldatzen edo indargabetzen ez den artean.